



# AURKIBIDEA

## BILBOTIK ONENA EMATEKO GARAIA

- 1** - Enplegua eta jarduera ekonomikoak.
- 2** - Zorroztasun ekonomikoak eta gardentasuna.
- 3** - Oinarrizko zerbitzuak bermatzea.
- 4** - Bilbo, hiri segurua.
- 5** - Elkartasuna eta gizarte-laguntzen kontrola.
- 6** - Auzoen arteko oreka.
- 7** - Garraio publikoak eta kanpoalderako loturak.
- 8** - Eraldaketa jasangarriarekin aurrera jarraitzea.
- 9** - Familia eta hezkuntza integrala.
- 10** - Hirian bizitzea: Kultura, aisia, kirola.





# 1 - Enplegua eta jarduera ekonomikoa





### **1.1. Bilbao Turismo eta Bilbao Next sozietateak bateratzea**

### **1.2. Bilbo, enpresa-korporazio eta enpresa berrien egoitza**

### **1.3. Bilboko merkataritza sektoreari laguntzea**

1.1. Bilbao Turismo eta Bilbao Next sozietateak bateratzea, nazioartekotzea, negozio-turismoa, ekitaldiak, turismoa eta hiriaren sustapena bezalako politikak biltzen dituen sozietate berri bat eratuz.

#### **1.2. Bilbo, enpresa-korporazio eta enpresa berrien egoitza:**

1.2.1. Bilbo korporazioen egoitza-gunetzat sustatzea.

1.2.2. Bilboko Udala eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko lankidetzat instituzional osorako "Bilbo-Bizkaia" proiektua garatzea, aukera ekonomikoak sortu eta enpresa-proiektuak garatzeko.

1.2.3. Enpresa berrientzako gunea eratzea Zorrotzako hiltegian.

1.2.4. Lan Ekintzaren ahalmena aregotzea enpresari berriei laguntzeko.

1.2.5. Enpresa-sustapena eta ekintzailetzaren aldeko programak dituzten erakunde publiko eta pribatuekin aliantzak eta proiektu partekatutakoak sortzea.

1.2.6. Zorrotzaurren, Hiriko Teknologia Parkea diseinatzea.

1.2.7. "Teknologia eta Arte: Diseinua", "Eko-eraikuntza eta hiri konponbideak" eta "Turismoa eta ongizatea" bezalako ekonomia-sektore berriak bultzatzea.

#### **1.3. Bilboko merkataritza sektoreari laguntzea:**

1.3.1. Kontsumitzaileak Bilbora erakartzeko ekimenak garatzea.

1.3.2. Bilboko auzoetan merkataritzarako jarduerak bermatzea.

1.3.3. Merkatarien Elkarteak sustatzea kudeaketari dagokionez eta merkatarien elkartegintza bultzatzea.

1.3.4. Merkatarien Elkarteekin elkarlanean jardutea Bilboko merkataritza politikak diseinatzeko.

1.3.5. Bilboko merkataritza eta ostalaritzaren birmoldaketarako sustapen planak aztertzea, ohiko merkataritza eta espezializazioa bultzatuz.

1.3.6. Surbisa sozietatea, Bilboko merkataritza eta ostalaritza birgaitzeko eta berritzatzeko tresna bilakatzea, zerbitzu sektorean diseinua eta teknologia bultzatuz.



1.3.7. "Bilbao Design and Digital City" proiektua sustatzea, artea, ekipamendu publikoak eta merkataritza hiriko kalitate-eremutat integratzeko.

1.3.8. Udal Etxebizitzak sozietatearen jabetzapeko lokalen erabilpen-plana garatzea, aspaldidaniko maizterrei salduz eta Bilboko auzoetan jarduera ekonomikoa sortuko duten erabilpen-aukera berriak aztertuz.

1.3.9. Erriberako Merkatuaren eraldaketa osatzea, bere nortasuna mantenduz eta etorkizuna ziurtatuko duen denda eta kudeaketa ereduari eutsiz.

#### **1.4. Bilboren nazioartekotzearekin aurrera jarraitzea, kanpoan gure enpresentzako aukerak sortarazteko:**

1.4.1. Madril eta Bartzelonaren antzera, Shanghaiko 2010eko Erakusketa Unibertsala bezalako apustu berriei etekina ateratzea.

1.4.2. Milan hiriarekiko akordioa garatzea, hiri-eraldaketa, merkataritza, diseinua, unibertsitatea, kultura eta enpresa alorretako esperientzia-trukaketa bultzatzeko.

1.4.3. Bilbo-Burdele lankidetzaren ardatza mantendu eta ekimen bateratuak gauzatzen jarraitzea, hala nola, estropada, hiri-gertaeretan partehartzea edota Europa mailako proiektuetan elkarlanean jardutea.

1.4.4. Singapur hiriarekiko hartu-emanaren sendotzea, bereziki hiri-garapenaren esparruan.

#### **1.5. Bilboko turismo sektorearen sustapena:**

1.5.1. Urtean milioi bat bisitari erakartzeko helburua finkatzea 2014rako.

1.5.2. Bilbon, turistei arreta egiteko gune handi bat eratzeko aukera aztertzea, Arriaga eta Zabalguneako bulegoak bilduz.

1.5.3. Turismoari laguntzeko proiektuak ezartzea teknologia berriez baliatuta.

1.5.4. Bilbao Convention Bureau sektore-arteko lankidetzarako tresnatzat suspertzea negozio eta kongresu-turismoaren alorrean.

#### **1.4. Bilboren nazioartekotzearekin aurrera jarraitzea, kanpoan gure enpresentzako aukerak sortarazteko**

#### **1.5. Bilboko turismo sektorearen sustapena**



1.5.5. Hiriaren sustapenerako eta Bilbao markaren eraketarako organo bateratua garatzea, Bilboko eskaintza publiko eta pribatu guztiak bilduz.

1.5.6. Bizkaiko Foru Aldundiarekin elkarlanean jardutea, turismoaren merkatuan Bilbo eta Bizkaia batera sustatzeko.

1.5.7. Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean jardutea, Bilbao marka nazioartean hedatzeko, haren kanpaina eta jardueretan parte hartuz.



## **2 - Zorroztasun ekonomikoa eta gardentasuna**





## 2.1. Zorroztasun ekonomikoa eta jarrera arduratsua

### 2.1. Zorroztasun ekonomikoa eta jarrera arduratsua:

2.1.1. Udalaren gastua bere benetako ahalmen ekonomikoari egokitzea, gastu politikak aurreikusitako diru-sarreraren errealitateari egokituz.

2.1.2. Gehiegizko zorra saihestea, maileguaz baliatuz bakarrik ez-ohiko kasuetan eta proiektu estrategikoak bermatzeko.

2.1.3. Udal programa eta zerbitzuen eraginkortasuna eta lehentasuna ebaluatzea.

2.1.4. Bilbo eta bilbotarren oinarriko zerbitzuetarako beharreko aurrekontu-finantzaketa bermatzea. Aurrekontuetako gastuen atalean, Udalaren ardurapeko zerbitzu eta programei lehentasuna ematea.

2.1.5. Bilboko etorkizuneko proiektuak, auzoen hobekuntza eta Bilbobus, garbiketa eta zabor-bilketa, ura eta saneamendua bezalako zerbitzuak mantentzeko urteroko inbertsioa bermatzea.

2.1.6. Udal gastuetan abian diren eraginkortasun eta austeritate politikak sendotzea, Udalak dituen baliabideen kudeaketa hobetuko duten programa eta ekintzen mesedetan.

2.1.7. Udala modernizatzeko egiten ari den ahaleginari eustea, administrazioa eraginkorragoa eta lehiakorragoa izan dadin.

2.1.8. Politika fiskal arduratsua mantentzea, ekonomia dinamizatzeko tresnatzat.

2.1.9. Udal finantzen kudeaketari buruzko eta zerbitzuen funtzionamenduari buruzko barne eta kanpo-ebaluaketan sakontzea.

2.1.10. Hornitzaileei fakturak ordaintzeko epeak murriztea, Berankortasun Legeak ezartzen dituen epeei jarraiki.



## 2.2. Bilbo. Gardentasuna:

2.2.1. Gardentasun gorenaren aldeko politikan sakontzea, bereziki kontratu publikoen esleipenari dagokionean.

- Administrazio alorreko prestakuntza, lizitazio eta esleipenerako prozedura baimenduen jarraipen telematikoa egitea erraztuko duen kontratazio elektronikoko plataforma batean lan egitea, gardentasuna eta eraginkortasuna bermatuz.
- "Bilbao.net" webgunean udal kontratu nagusien zerrenda plazaratzea, hornitzaileak, zerbitzuak eta esleipenetako kopuruak zehaztuz.

2.2.2. Hiritarrei Alkatearengana zein EAJ-PNVko zinegotziengana jotzeko aukera bermatzea eta partehartzea sustatzea teknologia berrien bitartez.

2.2.3. Agintaldirako Plana lantzea, kudeaketa-aldi horretarako konpromisoak adieraziz, eta hiritarrei jakinaraztea, esparru bakoitzean helburu batzuk finkatuz, eta urtero konpromisoen betetze-mailari buruzko balorazioa eginez.

2.2.4. Interneten bidez, Udal irekia, gardena eta partehartzailearen alde apustu egitea, hiritarrek gobernu programan ezarritako konpromisoen eraginkortasuna eta betetze maila ebaluatu ahal izateko.

2.2.5. Hiritarrei, webgunearen bidez, posta elektronikoko helbide bat eta helbide postala ematea, Alkateari kexak, iritziak edo iradokizunak zuzendu ahal izateko.

2.2.6. "Bilbao.net" webgunearen bidez, Alkatearen, zinegotzien eta Udaleko zuzendaritza karguen ordain-sariak ezagutaraztea.

2.2.7. "Bilbao.net" webgunearen bidez, ekitaldi bakoitzeko udal aurrekontua eta udal zergak zein prezioak adierazten dituzten ordenantza fiskalak ezagutaraztea, bai eta horien laburpena ere, hiritarrek ezagutu eta ulertu ahal izateko.

2.2.8. Gobernukide guztiek, kargua hartzean zein kargua uztean ondasunen aitortpena egin eta haientzat nolabaiteko interes pertsonala duten erabakiak saihestearen aldeko konpromisoa.

## 2.2. Bilbo. Gardentasuna



## 2.3. Gizarte partaidetza

2.2.9. Udalean, aurkako politikariekin errespetuzko jarrera politikoa eta pertsonala mantentzearen aldeko konpromisoari eustea, irainak, neurrigabeko erasoak edo jokabide politiko okerrak saihestuz.

2.2.10. Udalak eskaintzen dituen zerbitzuetan, hiritarren zein Udalaren eskubideak, betebeharrak eta erantzukizunak ezartzen dituzten zerbitzu-gutunak sortzen jarraitzea.

### 2.3. Gizarte partaidetza:

2.3.1. Hiritarren Kontseilua, Kontseilu Sektorialak eta Barrutietako Kontseiluak tarteko direla eta hiritarren kolektiboen nahiz Udal ekimenak ukitutako hiritarren partehartze zuzenaren bitartez.

2.3.2. "Sare sozialetan" Bilboko Udalaren partehartzea sustatzea, hiritarrei entzuteko eta hiritarrekin zuzeneko partaidetza bultzatzeko.



## 2.4. e-Gobernuan aurrerapausoak ematea:

### 2.4.1. Udaleko leihatila bakarra jorratzen jarraitzea:

- Hiritarren arretarako zerbitzu integratua.
- Udal prozedurak murriztu eta erraztea, hiritarrei dokumentuen bikoizketa saihestuz eta erantzuteko epeak murriztuz.
- Barrutietako Udal Bulegoak hedatzen eta hobetzen jarraitzea, Udal administrazio zerbitzuak gertutasunez eta kalitatez eskaini ahal izateko.

### 2.4.2. Udalean "Espediente elektronikoa" ezartzea, Udal prozedura gehienak Internet bidez egin ahal izateko.

### 2.4.3. GeoBilbaon erabilera publikoko informazioa txertatzea eta "Open data" bezalako ekimenetan aurrerapausoak ematea.

### 2.4.4. Hiritarrei eta enpresei, ziurtagiri digitalen erabileraren bermea ematea eta gainerako administrazioekiko interkonexioa lantzea, burokrazia saihestuko duen eraginkortasunaren mesedetan.

### 2.4.5. Administrazio elektronikoa sustatzea, administrazio prozedurak bateratuz eta hauetan paperaren erabilera eragotziz, Udal modernoa, irekia, gardena eta partehartzailea bultzatzeko asmoz, hiritarrek eta enpresek aurrez aurre egin beharreko izapideak ahalik eta gehien murriztuz.

## 2.4. e-Gobernuan aurrerapausoak ematea



## 2.5. Erakundeen arteko lankidetzak

### 2.5. Erakundeen arteko lankidetzak:

2.5.1. Ertzaintzarekin elkarlanean jardutea Bilboko hiritarren segurtasunari dagozkion politikan, koordinazio zentroa, deliktuen tipifikazioa, akademiak eta datu polizialen transmisioa bezalako ekimenen bitartez.

2.5.2. Eusko Jaurlaritzako Larrialdiekin eta beste erakundeekin elkarlanean jardutea Bizkaia mailako erakunde-arte ko krisi-mahaietan, larrialdi eta alerta kasuetan.

2.5.3. Epailera, fiskaltza eta beste polizia batzuekin elkarlanean jardutea hiritarren segurtasuna, immigrazioa eta bestelako gaien inguruan.

2.5.4. Sustapen Ministerioarekin eta gainerako euskal erakundeekin elkarlanean jardutea Bilbora Abiadura Handiko Trenaren iritsiera errazteko eta Abandoko Geltoki berriaren proiektua zehaztu eta gauzatzeko.

2.5.5. Eusko Jaurlaritzako Industria Sailarekin eta Teknologia Parkeekin elkarlanean jardutea, Zorrotzaurren Hiriko Teknologia Parkearen diseinatu eta gauzatzeko.

2.5.6. Eusko Jaurlaritzarekin, Bizkaiko Foru Aldundiarekin, BBKrekin eta Athletic-ekin elkarlanean jardutea San Mames Barria sozietatearen barruan futbol-zelai berriaren eraikuntza burutzeko.

2.5.7. Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta Bilbao Ría 2000 sozietatearekin elkarlanean jardutea San Mamesen Bilboranzko errepide-sarbide berrien eraikuntza burutzeko, Sabino Aranako biaduktua kentzeko eta eremu berriaren urbanizazioa definitzeko.

2.5.8. Bilbao Ría 2000 sozietatearekin hirigintza alorrean elkarlanean jardutea, Garellanon 1.100 etxebizitza eraikitzeko, horietatik 550 babes ofizialekoak.

2.5.9. Bilboko Portuarekin, Itsas Museoarekin eta Ur Partzuergoarekin elkarlanean jardutea Bilboko itsasadarrean bela eskola bat eratzeko.

2.5.10. Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailarekin hirigintza alorrean elkarlanean jardutea, sustapen publikoko etxebizitzaren eraikuntza garatzeko Boluetako Santa Anan, Miribillan, Ametzolan eta Zorrotzaurre aldean.

2.5.11. Euskal Herriko Unibertsitatearekin elkarlanean jardutea, Meatzen eta Herri Lanen Ingeniaritza Teknikoko fakultate berria eraiki eta Basurtuko Campus Teknologikoa sustatzeko, Basurtuko Ospitalearen ondoan Medikuntza Fakultate berria eraikitzeko eta lan eta zuzenbide alorreko titulazioak ugaritzea erraztuko duen Sarrikoko Campusa garatzeko.



2.5.12. Deustuko Unibertsitatearekin elkarlanean jardutea Deustu Business School eta bikaintasunezko eta ikerketa-alarreko bestelako unibertsitate-zentroak garatzeko.

2.5.13. Hezkuntza Sailarekin elkarlanean jardutea, Bilbon Arte Eszenikoetako Goi Mailako Zentroa ezartzeko.

2.5.14. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin elkarlanean jardutea, Bilboko Lehen Hezkuntzako Ikastetxeetan 2011-2015 inbertsio plana garatzeko.

2.5.15. Erakunde, eragile eta kolektibo euskaltzale nagusiekin elkarlanean jardutea, hiritarren artean Euskararen erabilera sustatzeko.

2.5.16. Bizkaiko Foru Aldundiarekin elkarlanean jardutea Zorrotzan adinekoentzako egoitza eta eguneko zentroa eraikitzeko.

2.5.17. Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuarekin elkarlanean jardutea, gizarte-laguntzak jasotzen dituztenen laneratzea sustatzeko, eta lan-munduan sartzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboetako programa espezifikoak eskaintzeko.

2.5.18. Gainerako erakunde publiko nahiz pribatuekin elkarlanean jardutea Arte Ederren Museoa nazioarteko erreferentzia-zentrotzat kontsolidatzeko, pinakotekaren kalitate eta dimentsioari dagokion jauzi berri bat erraztuz.

2.5.19. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin elkarlanean jardutea, Bilboko osasun-zentroen sarea hobetzeko, bereziki Miribillan, Iralan, Santutxun eta San Inazion.

2.5.20. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin elkarlanean jardutea, Basurtuko Ospitalea kalitatezko arreta-zentrotzat sustatzeko.

2.5.21. Merkatarien Elkarteekin elkarlanean jardutea Bilboko merkataritza politikak diseinatzeko.

2.5.22. Bizkaiko Foru Aldundiarekin elkarlanean jardutea, turismoaren merkatuan Bilbo eta Bizkaia batera sustatzeko.

2.5.23. Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean jardutea, Bilbao marka nazioartean hedatzeko, haren kanpaina eta jardueretan parte hartuz.





# **3 - Oinarrizko zerbitzuak bermatzea**





### **3.1. Bilboko kalitatearen mantenimendua lehentasunez-kotzat jotzea aurrekontuetan**

### **3.2. Garbiketa eta zabor-bilketaren kalitateari eustea**

3.1. Bilboko kalitatearen mantenimendua lehentasunez-kotzat jotzea aurrekontuetan, oinarrizko zerbitzu publikoetarako beharrezkoak diren baliabideak bermatuz.

#### **3.2. Garbiketa eta zabor-bilketaren kalitateari eustea:**

3.2.1. Zabor organikoetarako bosgarren edukiontzia ezartzen jarraitzea, hondar organikoak berrerabili eta zabortegietako zabor-metaketa murrizteko asmoz.

3.2.2. Birziklatzearen etengabeko hazkuntza xede duen "zero isurpen" proiektua sustatzea, hondakin-motaren arabera aukeraketa bultzatuz.

3.2.3. Sentsibilizazio eta gizarte-heziketarako kanpainak garatzea, hiriaren garbitasuna eta hondakinen murrizketa bermatzeko.

3.2.4. Ekintzak, ekitaldiak edo jaialdiak antolatzen direnean, garbiketa-plan bereziak bultzatzea, hiriko garbitasuna mantendu eta espazio publikotik zaborrak berehala kentzeko asmoz.

3.2.5. Garbiketa zerbitzuan eta zabor-bilketan sortarazten diren eragozpen eta zaratak murrizteko aurrerapausoak ematea.

3.2.6. Zazpi Kaleetako ezaugarri bereziak kontuan hartuta, bertako garbiketa egiteko eta zaborrak biltzeko plan berezia sustatzea.

3.2.7. Zaborrontzien etengabeko berriztapena, hautsontziak edo txakurren irazkinak biltzeko poltsak bezalako baliabide berriak erantsiz.

3.2.8. Bilbon komun publiko gehiago jartzea eta komun publiko mugigarrien hornidura areagotzea.



### 3.3. Argiteria publikoa areagotzea eta energia aurreztea:

3.3.1. Hiriko kale eta espazio publikoen argiztapen ona bermatzeko, auzoetako argiteria publikoa hobetzeko planari eustea.

3.3.2. Bilboko "Kale ilunak" proiektua lantzea, segurtasunik gabekotzat jotzen diren kale eta eremuetan argiztapena hobetzeko.

3.3.3. Fatxadetan ezarritako argi-puntuen ordeztuz lurzoruan finkatutako kaleargiak jartzen jarraitzea, espaloia-aren argiztapenari lehentasuna emanez galtzadaren argiztapenaren aldean.

3.3.4. Argiztapen-premia, energia-kontsumoaren murriztapena eta argi-kutsaduraren arteko oreka sustatzea.

### 3.4. Ur hornidura bermatzea:

3.4.1. Bilboko Ur Hornikuntza Sarea hobetzeko planarekin aurrera jarraitzea, hodi-apurketak saihestu eta uraren aurrezpena hobetzeko.

3.4.2. Hiritarrei ur-etenen eta zerbitzuaren alterazioen berri ematea eta jakinarazpenak helarazteko bideak sendotzea.

3.4.3. Ekonomian, merkataritzan eta etxeko bizitzan eragin gutxien izateko, egin beharreko ekintzak ordutegi egokian burutzea erraztea.

3.4.4. Uraren senezko kontsumoaren aldeko sentsibilizazio kanpainak bultzatzea.

3.4.5. Iturri publikoetan, ureztatzean, igerlekuetan eta bestelako baliabide publikoetan, ur-kontsumoa kontrolatzeko sistema berriak sustatzea.

3.4.6. Saneamenduaren zuzentze-planarekin aurrera jarraitzea, Bilboko saneamendu sarearen aurreikusitako berriztapena burutu ahal izateko.

3.4.7. Jabe erkidegoekin elkarlanean jardutea, ur-horniketa eta saneamendurako hoditeria pribatuak mantendu eta hobetzeko.

### 3.3. Argiteria publikoa areagotzea eta energia aurreztea

### 3.4. Ur hornidura bermatzea



### **3.5. Bilboko parke eta berdeguneen kalitatea**

### **3.6. Espazio publikoaren kalitatea eta senezko erabilera**

#### **3.5. Bilboko parke eta berdeguneen kalitatea:**

3.5.1. Bilboko berdeguneen mantenimendua bermatzea, bizitza eta aisiaren kalitatearen isla diren heinean.

3.5.2. Berdeguneak apaingarriztat lehenestea bidegurutzetan, parkeetan eta lorategietan.

3.5.3. "Ekaitzetarako tangen" eraikuntza sustatzea, euri-ura bildu eta Bilboko parkeen mantentze-lanetan eta ureztapenean berrerabili ahal izateko.

3.5.4. Bilboko hiri-parkeetan jarduera-guneak sustatzea eta horietan haurrentzako jolasak, adinekoentzako "ariketa fisikoak" eta parkeak biziberritzeko moduko jarduerak antolatzea.

3.5.5. Bilboko auzoetan haurrentzako jolas-gune estalien eraikuntza sustatzea.

3.5.6. Hiritarrek Bilboko parkeetako aberastasun eta aniztasuna ezagutzeko planak garatzea.

#### **3.6. Espazio publikoaren kalitatea eta senezko erabilera:**

3.6.1. Espazio publikoan dauden hiri-altzari eta elementuen mantenimendua eta egoera ona bermatzea.

3.6.2. Espazio publikoan dauden elementu-kopurua murrizteko sistemak aztertzea, balio-aniztasuna eta euskarrien kontzentrazioa bultzatuz.

3.6.3. Espazio publikoan dauden elementuen diseinu eta itxuraren hobekuntzarako planari eustea.

3.6.4. Jardueren ordutegi eta erabilpen-intentsitatea eta hiriaren jarduera sozial eta bizitegi-izaeraren arteko koordinazioa hobetu eta oreka mantentzea.



C

M

Y

CM

MY

CY

CMY

K

## 4 - Bilbo, hiri segurua





### **4.1. Auzoetan Udaltzaingoa en hedapena areagotzea**

### **4.2. Udaltzaingoa beharrezko baliabideez hornitzea**

### **4.3. Erakundeen arteko polizia-lankidetza**

**4.1. Auzoetan Udaltzaingoa en hedapena areagotzea, komisaldegietan udaltzain kopurua ugarituz.**

**4.2. Udaltzaingoa beharrezko baliabideez hornitzea:**

4.2.1. 850 udaltzainez osatutako taldeari eustea, bajak eta erretiroak estaltzeko behar adina deialdi antolatuz.

4.2.2. Udaltzaingoa, Suhiltzaileak, Babes Zibilia eta SAMU ambulanziaz bilduko dituen Miribillako Segurtasun Zentral berria abian jartzea.

4.2.3. Udaltzaingoa Txakurren Unitatea sendotzea eta auzoetan hauen presentzia areagotzea.

4.2.4. Udaltzaingoa eta Suhiltzaileen materiala berriztatzea eta ibilgailu, telekomunikazio, IKT eta arropa hornidura bermatzea.

4.2.5. Bilbopol plataforma teknologiko berria ezartzea.

4.2.6. "On-line komisaldegia" ezartzea, lapurreta-salaketak tramitatzeko aukera eskainiz.

4.2.7. García Salazar eta Zabala bezalako kaleetan, bideo-zaintza sistemaren hedapena aztertzea.

**4.3. Erakundeen arteko polizia-lankidetza:**

4.3.1. Ertzaintzarekin elkarlanean jardutea.

- Ertzaintzarekiko koordinazio-zentroa.
- Deliktu eta ekintzen tipifikazio amankomuna.
- Datu-pasabide amankomuna.
- Polizia eta Suhiltzaile Akademien koordinazio plana.

4.3.2. Epailtza, fiskaltza eta beste polizia batzuekin elkarlanean jardutea hiritarren segurtasuna, immigrazioa eta bestelako gaien inguruan.



#### 4.4. Udaltzaingoak udal planetan laguntzea:

4.4.1. Gizarte Ekintza Sailak garatutako "Gizarte-laguntzen kontrola" planean parte hartzea Udaltzaingoaren laguntzaz.

4.4.2. Bilboko Mugikortasun Seguruko Planean eta Euskadiko Bide-Segurtasun Planean parte hartzea.

4.4.3. Genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko protokoloan parte hartzea Berdintasun Sailaren eta Gizarte Ekintza Sailarekin batera.

4.4.4. Bibo Zaharra, San Frantzisko eta Zabala bezalako auzoetako birgaitze eta hobekuntza planetan parte hartzea.

4.4.5. Barruti-Kontseiluetako Batzordeetan parte hartu eta lankidetzara osoa eskaintzea, Bilboko segurtasunari buruzko informazioa emanaz eta irakokizunak jasoz.

#### 4.5. Merkataritzako segurtasunean laguntzea:

4.5.1. Bilboko merkataritza-guneetan, segurtasun dispositibo bereziak antolatzea, Txakur Unitatearen presentzia sustatuz.

4.5.2. Merkataritzako segurtasunari laguntzeko dispositiboetan, udaltzainen laguntza areagotzea, bereziki jarduera komertziala biziagoa den kanpaina edo sasoietan.

4.5.3. Merkatariei, deliktuen inguruko berehalako informazioa emateko sistemari eustea, informazioa partekatu eta saltokietan alerta sistemak ezartzeko asmoz.

4.5.4. Bilboko merkatariei segurtasun-kontuei buruzko aholkularitza eskaintzea.

#### 4.6. Segurtasun-dispositibo bereziak:

4.6.1. Asteburuetan eta jaiegunetan gaueko segurtasun dispositibo bereziei eustea aisialdia babesteko.

4.6.2. Aste Nagusian, Aste Santuan eta Gabonetan, segurtasun plan bereziak garatzea hiritarren segurtasunari zein trafikoari dagokionez.

4.6.3. Indarkeriaz egindako lapurreta-deliktuen aurka jotzeko beharrezkoak diren baliabideak edukitzea, ibilgailuetan egindako lapurretak zaindu eta kontrolatzeko planak garatuz.

### 4.4. Udaltzaingoak udal planetan laguntzea

### 4.5. Merkataritzako segurtasunean laguntzea

### 4.6. Segurtasun-dispositibo bereziak



## 4.7. Prebentzioa eta larrialdietako babesa

## 4.8. Osasun publikoa eta kontsumo arduratsua

### 4.7. Prebentzioa eta larrialdietako babesa:

4.7.1. Prebentzio plan bereziak garatzea hirian ospatzen diren ekitaldi eta jardueretarako.

4.7.2. Larrialdietan eta alerta kasuetan, Eusko Jaurlaritzako Larrialdi Zerbitzuarekin eta Bizkaia mailako beste erakunde batzuekin elkarlanean jardutea Krisi-Mahaien inguruan.

4.7.3. Bilboko Suhiltzaileen materiala eta esku-hartzeko ibilgailuak berritzea, lana baldintza egokietan egin ahal dezaten.

4.7.4. Bilboko Suhiltzaileen langilegoa berritzea, erretiroak estaliz eta etengabeko prestakuntza-planak garatuz.

4.7.5. Deustun, Suhiltzaileen bigarren parkea abian jartzea.

4.7.6. 2013 urtean Bilboko Larrialdi Plana eguneratzea.

### 4.8. Osasun publikoa eta kontsumo arduratsua:

4.8.1. Elikadura-ikuskaritza plana garatzea Bilboko merkataritzan, ostalaritza lokaletan eta elikagai-industrietan.

4.8.2. Udal Kontsumo Bulegoaren bitartekaritza-lana areagotzea saltoki eta kaltetuen artean.

4.8.3. Bilboko hilerriaren zaintza bermatu eta kalitatezko zerbitzua eskaintzea.

4.8.4. Kontsumo arduratsuaren aldeko eta kontsumitzaileen babeserako kanpaina publiko eta pedagogikoak garatzea.

4.8.5. Merkatu tradizionalak hurbiltasunezko eta kalitatezko merkataritza-gunetzat kontsolidatzea.



## **5 - Elkartasuna eta gizarte-laguntzen kontrola**





## 5.1. Gizarte zerbitzuen kalitatea

## 5.2. Gizarte-laguntzen zorroztasuna

### 5.1. Gizarte zerbitzuen kalitatea:

5.1.1. Bilboko gizarte-zerbitzuetan arreta bizkortzea, Oinarrizko Zerbitzuen lana sendotuz, gizarte-eskakizunei erantzun bizkor eta eraginkorragoa emateko asmoz.

5.1.2. Udal gizarte-zerbitzuen arreta lortzeko itxaron-zerrenden murrizpena bermatzea, hitzordua 10 eguneko gehienezko epean emateko asmoz.

5.1.3. Gizarte alorreko Zerbitzu-Gutunak sortzen jarraitzea, Bilbon gizarte arretaren kalitatea bermatzeko.

5.1.4. Gizarte Ekintza Sailean teknologia berriak ezartzeko aurrerapausoak ematea, prozesuak erraztu eta zerbitzuaren eraginkortasuna hobetzeko asmoz.

### 5.2. Gizarte-laguntzen zorroztasuna:

5.2.1. Oinarrizko errenta jasotzea enpleguaren bilaketa aktiboarekin lotzea.

5.2.2. Gizarte alorreko kontrol eta ikuskapen programak areagotzea, onuradunek gizarte-laguntzen erabilera egokia egiten dutela bermatzeko eta iruzurrak eta gehiegikeriak ekiditeko.

5.2.3. Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten pertsonen, gizarteratze eta elkarbizitzari buruzko arauekin bat datorren errespetuzko jarrera soziala izan dezaten bultzatzea.

5.2.4. Doako edo hobaritutako zerbitzu publikoei buruzko irizpideak berraztertzea, zerbitzu publiko jakin batzuetan gehiegikeriak eta halamoduzko erabilerak ekiditeko.

5.2.5. Gizarte zerbitzuak ematerakoan, erakundeen arteko interoperabilitatea eta informazio-trukaketa erraztea.



### 5.3. Pobrezia eta bazterketaren aurka:

5.3.1. Bilboko hiritar guztiei janaria, aterpea eta arropa bezalako oinarrizko premiak betetzeko aukera bermatzea.

5.3.2. Etxegabekoak artatzeko zentroa eta hotz-boladetarako aterpetxea ezartzeko behin betiko kokapen berria bilatzea.

5.3.3. Beharrak dituzten pertsoneri diru-sarrera bermatzeko Errenta Legea garatzea, gutxieneko diru-sarrera izan dezaten.

5.3.4. Pentsiorik baxuenak jasotzen dituztenei diru-sarrera osagarriak bermatzea, lanbide arteko gutxieneko soldata adina diru eskura dezaten.

### 5.4. Enpleguaren bidezko gizarteratzea:

5.4.1. Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuarekin elkarlanean jardutea, gizarte laguntzak jasotzen dituztenen laneratzea sustatzeko.

5.4.2. Bilboko auzoetan enplegu sustapenerako programak bultzatzea, Bilbo-Zaharra, San Frantzisko eta Zabala auzoetarako proiektu espezifikoekin.

5.4.3. Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuarekin elkarlanean jardutea, langabezian dauden Bilboko hiritarrek programa espezifikoak izan ditzaten, bereziki laneratzeke zailtasunak dituzten kolektiboetara zuzenduta:

- Langabezian dauden 45 urtetik gorakoak.
- Langabezian epe luzean egon diren pertsonak.
- Emakumeak.
- Prestakuntza eskaseko gazteak.
- Etorkinak.
- Toxikomano-ohiak.
- Oinarrizko Errenta jasotzen duten pertsonak.

### 5.3. Pobrezia eta bazterketaren aurka

### 5.4. Enpleguaren bidezko gizarteratzea



## 5.5. Genero-indarkeriaren biktimei lagundu eta arreta egitea

### 5.5. Genero-indarkeriaren biktimei lagundu eta arreta egitea:

5.5.1. Genero-indarkeriaren biktimei arreta egiteko protokoloa lideratzea Udaleko Gizarte Ekintza Sailarekin, Udaltzaingoarekin, Osakidetzarekin eta Ertzaintzarekin batera.

5.5.2. Genero-indarkeriaren biktimei "harrera-etxeak" eskaintzea. Gaur egun 9 daude.

5.5.3. Beste erakundeekin elkarlanean jardutea, biktimen segurtasuna bermatuko duten babes-plan espezifikoak eskaintzeko.

5.5.4. Genero-indarkeriako kasuetan sortarazten den nahasmenduan familiaren barruan kaltetutako adingabekoei arreta egiteko plan espezifikoak garatzea Gizarte Ekintza Udal Sailarekin batera.

5.5.5. Bilboko ikastetxeetan genero-indarkeriari buruzko prebentzio planak garatzea.

5.5.6. Babes legala eta arreta psikologiko eta sozialari dagozkien kontuetan, genero-indarkeriaren biktimei lagundu eta arreta egitea.

5.5.7. Hirian gertatzen diren genero-indarkeria kasuetan Salaketa Publikoa Protokoloa aplikatu eta biktimei elkartasuna eskaintzea.

## 5.6. Bilba 0.7

### 5.6. Bilbo 0.7:

5.6.1. Bilbok txirotutako herrialdeekin hartu duen lankidetzakonpromisoari eustea, lankidetzaproiektuetarako 0.7ko ekarpena mantenduz.

5.6.2. Gardentasunez eta erantzunkizunez gauzatu beharreko lankidetzak sustatzea, diru-laguntzak jasotzen dituzten erakundeei buruzko informazio zehatza, eta balorazioari, aurrekontuei eta ekintzen inpaktuari dagozkien irizpideen gaineko jakingarriak bilduz.

5.6.3. Lankidetzaren kudeaketan eraginkortasun-irizpideak txertatzea eta, Bilboko Garapen-Lankidetzarako Kontseiluaren bitartez, gainerako euskal administrazioekin eta gobernuz kanpoko erakundeekin lankidetzak alorreko itunak sustatzea.

5.6.4. Elkartasuna eta giza-eskubideekiko errespetua oinarri dituen balio-heziketa sustatzea, euskal gizarte eta erakundeekin batera mamitutako ekintzen bitartez.

5.6.5. Bilbo, Bidezko Merkataritzaren aldeko Europako Hirien Sarean sartzea, hiritarrek elkartasuna, zuzentasuna eta justizia sozialaren alde hartu duten konpromisoaren adierazgarritzat.



## 6 - Auzoen arteko oreka





## 6.1. Bilboko Barruti-Kontseiluak auzoetako ekintza zentrotzat sustatzen jarraitzea

## 6.2. "Auzo Bihotzak" proiektua garatzea

### 6.1. Bilboko Barruti-Kontseiluak auzoetako ekintza zentrotzat sustatzen jarraitzea:

6.1.1. Urtero 1,5 milioi inguruko ekarpena egitea Bilboko Barruti bakoitzeko, Kontseiluek auzoetan egin beharreko inbertsioak zehaztu eta lehenesteko aukera izan dezaten.

6.1.2. Barruti-Kontseiluekin eta auzo-elkarteeekin batera "2015 Auzokide Plana" lantzea, Bilboko auzoen hobekuntzari tratamendu integrala eman ahal izateko.

### 6.2. "Auzo Bihotzak" proiektua garatzea, Bilboko auzoetan jarduera ekonomikoa, komertziala, soziala eta kulturala bermatzeko:

6.2.1. Auzoetako espazio publikoetan jarduerak antolatzeko aukera bultzatzea, bizitza dinamizatuz eta jendea bertako merkataritza-guneetan atxikiz.

6.2.2. Merkataritza tradizionala bultzatzeko eta berritzeko planak sustatzea eta merkatarien elkarteekin elkarlanean auzoetako hiri-hobekuntzarako politikak diseinatzea.

6.2.3. Auzoetako merkataritza birgaitzeko laguntza planak garatzea eta hutsik dauden lokalen erabilera sustatzea.

6.2.4. Auzoetan jarduera ekonomikoak eratu eta enpresa proiektuak erakartzeko aukerak bilatzea.

6.2.5. Bilboko auzo bakoitzaren berezko nortasuna sendotzeko planak garatzea, auzoetan jarduera eta bizitza soziala bermatzeko dituzten dinamikak sortzeko asmoz.

6.2.6. Auzoetako bizitza dinamizatuko duten ekintza kultural eta sozialak sustatzea, hiritar ingurune desberdinetatik sortutako ekimenak uztartuz.

6.2.7. Bilbon WIFI gune-kopurua areagotzea, kontuan izanda Bilboko auzoetan zeintzuk diren gehien erabiltzen diren espazio publikoak.

6.2.8. Haurrentzako jolas-gune kopurua areagotzea, Bilboko auzo nagusietan estalitako guneak sortuz.



### 6.3. Bilboko goi-auzoen berregokitze eta berrantolaketarekin aurrera jarraitzea:

#### 6.3.1. Mintegitxueta. Auzoaren eraberritze integrala burutzea:

- Aparkatzeko lurgaineko 50 leku berri.
- Ailbobusa plazaraino iristea erraztuko duen auzoko sarbideen antolaketa berria.
- Auzoa antolamendu barnean sartzea, hirigintza mailan arautuz.

#### 6.3.2. Masustegui:

- Saneamendua, ura eta argiztapena osorik eraberritzen jarraitzea, bide eta eskaileren hobekuntza barne.
- Antolamendu barnean auzoa sartzeko sustapena, hau hirigintza mailan arautuz.

#### 6.3.3. Zurbaranbarri Goikoa:

- Espazio pribatuen lagapenaren araberako berriztapenarekin aurrera jarraitzea, bereziki irisgarritasuna, plaza eta haur eta adinekoentzako eremuak hobetuz.
- Remar, Sarrikue, Andra Maria, Ugarteburu, Zurbaranbarri eta Atxetan aparkalekuak hobetzea.

#### 6.3.4. Uribarri Goikoa:

- Uribarri Goikoan argiztapena hobetzen jarraitzea.
- Tutulurainoko irisbide mekanikoen plana burutzea.
- Jesus Intxausti plaza sustatzeko erabilera bereziak bilatzea, etorkizunera begira trenbiderako ordezko erabilera berriak aztertuz.

#### 6.3.5. Betolatza-Uretamendi:

- Auzoen eraberritze integrala burutzea, Ingurubide errepidea burutuz, eskailerak, eta berrizteko lagatutako espazioak hobetuz.
- BBKri dagokion atzealdeko patioa berreskuratzeko aukera aztertzea, entitatearekin akordio batera iritsita.

### 6.3. Bilboko goi-auzoen berregokitze eta berrantolaketa rekin aurrera jarraitzea



## 6.4. Auzoak birgaitzeko plan bereziekin aurrera jarraitzea

### 6.3.6. Arangoiti:

- Egileor eta Ganekogorta kaleetan oinezkoentzako eremua osatzea.
- Argiztapena hobetzeko plana, energia-eraginkortasunari buruzko irizpideak gogoan hartuta.

### 6.3.7. Zorrozgoiti:

- Zazpilanda auzoko atarietara iristeko balizko hobekuntza aztertzea.
- Zorrotzagane eta Zorrotzabason haurrentzako eta adinduentzako guneak sustatzea.
- Kaleetan oztopo arkitektonikoak kentzea.
- Argiztapena hobetzea, energia-eraginkortasunari buruzko irizpideen arabera.

## 6.4. Auzoak birgaitzeko plan bereziekin aurrera jarraitzea:

### 6.4.1. Olabeaga:

- Olabeagatik Basurturaino, oinezkoentzako lotura bide berde batez egiteko aukera aztertzea, aisialdi-eremuak, haurrentzako guneak, adinekoek ariketa fisikoak egiteko guneak eta itsasadarraren pasealekuaren ondoan parke bat jarritz.
- Urogozo kaleko espaloiak hobetzea.

### 6.4.2. Bolueta:

- Larroque Margolaria eta Juan Irigoyen Kaleetako auzokideekin elkarlanean jardutea, erabilera publikorako espazio pribatu hauen berriztapena sustatzeko.
- Amateur biribilgunearen bidez, Bilbo-Galdakao errepidea humanizatu eta zonaldearen irisgarritasuna hobetzea.
- Basarrate Plaza eraberritzea, bertako auzokideen eskakizunak kontuan hartuta.

### 6.4.3. Peñaskal:

- Auzoan, lurgaineko aparkalekuak sustatzeko dauden aukerak aztertzea.
- Argiztapena osorik hobetzeko plana burutzea.
- Mendi-arteko plaza hobetzeko aukerak aztertzea.



## 6.5. Zazpi Kaleak, auzoa eta Bilboko funtsezko ondarea:

- 6.5.1. Bilboko Zazpi Kaleetako bizitegi izaera bermatzea, egoiliarrei bizitza-baldintza egokiak eskainiko dizkieten ekimenak sustatuz.
- 6.5.2. Auzoan bizitza-kalitatea eta ondarea bermatuko dituzten Zazpi Kaleetako hirigintza eta zerbitzuak mantentzeko plan bereziak garatzea.
- 6.5.3. Zazpi Kaleetako elementu arkitektonikoak, bizitegi elementuak, guneko publiko, komertzial eta estetiko guztiak txertatuko dituen kalitate handiko irudi globala diseinatzea.
- 6.5.4. Areatzan azpiegituren etengabeko muntaketa eta desmuntaketa lanak saihesteko, erabilera anitzeko eremu estali egonkorra eratzeko aukera aztertzea.
- 6.5.5. Auzoko elementu erakargarri bezala, Zazpi Kaleetako ekipamenduak sustatzeko plana eratzzea.
- 6.5.6. Hutsik dauden lokal komertzialak okupatzeko plana sustatzea, kalitatezko merkataritza espezializatua bultzatzeko asmoz.
- 6.5.7. Erriberako merkatuaren birmoldaketa amaitzea, Zazpi Kaleetako trakzio-elementu bihurtuz.
- 6.5.8. Zazpi Kaleetako oinezkoentzako erabilera hobetzea.

## 6.6. Bilbo-Zaharra, San Frantzisko eta Zabala: berregokitzea eta elkarbizitza:

- 6.6.1. Programa sozialak, kulturalak eta ekonomikoak eta berregokitze urbanistikorako programak uztartuko dituen "Imajinatu" programa garatzea.
- 6.6.2. San Frantzisko eta Naxaren artean, Hernani eta Maiatzaren Bia kaleak urbanizatzea. Hiritarrekin batera, San Frantzisko kalea osorik edo zatika oinezkoentzat egiteko aukera ebaluatzea.
- 6.6.3. Zabala kalea hobetzea.
- 6.6.4. Elkarbizitza, gizalegea eta immigrazioaren integrazioarako planak garatzea.
- 6.6.5. Etxebizitzak hobetu eta birgaitzeko plana bultzatzea.
- 6.6.6. Etxebizitzaren neurritz gaineko okupazioa ekiditeko bideak aztertzea.
- 6.6.7. Ertzaintza eta beste polizia batzuekin elkarlanean jardutea segurtasun plan berezietarako.
- 6.6.8. Merkatarien Elkartarekin elkarlanean jardutea ohiko merkataritza mantentzeko.

## 6.5. Zazpi Kaleak, auzoa eta Bilboko funtsezko ondarea

## 6.6. Bilbo-Zaharra, San Frantzisko eta Zabala: berregokitzea eta elkarbizitza



## **6.7. Auzoaren hobekuntzarako Imajinatu Otxarkoaga partehartze-proiektua ezartzen jarraitzea**

## **6.8. Bilboko auzoetako irisgarritasuna hobetzeko planarekin aurrera jarraitzea**

### **6.7. Auzoaren hobekuntzarako Imajinatu Otxarkoaga partehartze-proiektua ezartzen jarraitzea:**

6.7.1. Gizalegea eta elkarbizitza programak garatzea, ondare publikoaren gizabidezko erabilera eta auzoarekiko errespetua sustatuz.

6.7.2. "Gatazkak konpontzeko" lana areagotzea Otxarkoagan, gizarte alorreko eta auzokideen arteko gatazka-egoerei aurre egiteko.

6.7.3. Gazteak, ama gazteak edo adinekoak bezalako ahulezia bereziko kolektiboen aldeko ekimenak aztertu eta planteatzea.

6.7.4. Merkatarien Elkartearekin elkarlanean jardutea ohiko merkataritza mantentzeko.

### **6.8. Bilboko auzoetako irisgarritasuna hobetzeko planarekin aurrera jarraitzea:**

6.8.1. Bilboko auzoetan, irisgarritasun zaitasunak agertzen dituzten lekuetan, igogailu eta arrapala mekanikoak eraikitzeo aukera aztertu eta abian jartzea.

6.8.2. Bilbon irisgarritasun plana ezartzen jarraitzea, oztopo arkitektonikoak kentzeko, espaloiak beharrezko eta irisgarritasunari buruzko araudira egokitzen diren beste ekintza batzuk aurrera ateratzeko.

6.8.3. "Bide irisgarriak" proiektua garatzea Bilboko auzoetan, oztopo arkitektonikorik eza bermatzen duten lotura-bideak zehaztuz.

6.8.4. Bilboko auzoetan, haurrentzako egokitutako jolas-guneak jartzea.

6.8.5. Auzoak bide atseginen bidez lotzea, oinezkoen mugikortasuna erraztuz.



## **7 - Garraio publikoa eta kanpoalderako loturak**





## 7.1. Bilbon aparkatzeko baldintzak hobetzea

### 7.1. Bilbon aparkatzeko baldintzak hobetzea:

7.1.1. Institutu Nagusiko eta Zabalguneko Plazako txandakako aparkalekuak berregokitzea, segurtasuna eta irisgarritasuna hobetuz eta okupazioaren inguruko informazioa emateko teknologia berriak ezarriz.

7.1.2. Lur gaineko aparkaleku plana: 2.000 plaza gehiago Bilboko auzoetan. Xehetasunak auzoetako programan.

7.1.3. Aparkaleku-eskaintza areagotzeko, Bilboko auzoetako kaleetan aparkatzeko baldintzak aztertzea.

7.1.4. Abiadura Handiko Trena Abandoraino sartzeko plan urbanistikoan txandakako lurpeko aparkalekuen beharra zehaztea.

7.1.5. Muga egiten duten auzoetan TAO eremu berriak jartzeko aukera aztertzea, Barruti-Kontseiluekin eta egoiliarrekin batera.

7.1.6. Bilboko txandakako aparkalekuetan auto elektrikoa kargatzeko aukerak erraztea, udal erabilgarritasuneko lekuak erabiliz.

7.1.7. Udalak bultzatutako aparkalekuen ikuskatze-plana indartzea, emakidadun, sustatzaile eta eraikitzaileak mantentze-lanak egitera behartuz.

## 7.2. Bilboko garraio azpiegituren modernizazioari eustea

### 7.2. Bilboko garraio azpiegituren modernizazioari eustea:

7.2.1. Egungo Termibus autobus geltokia birmoldatzea.

7.2.2. Abiadura Handiko Trena Bilbora ekartzen eta Abandoko Geltoki Berriaren proiektua lantzen eta garatzen laguntzea:

- Abandoko eremurako proiektu urbanistikoa zehaztea, San Frantzisko eta Zabala integratzeko eta auzo hauetako ekipamenduak hobetzeko aukera gogoan hartuta.
- Abando, garraioak bateratzeko gunea izatea bilatzea, trenbide zerbitzu desberdinak, hiri barruko eta hiriarteko autobusak eta txandakako aparkalekuak uztartuz.

7.2.3. Bilboko Aireportua handitu eta nazioarteko linea kopurua areagotzearen aldeko apustua.



### 7.3. Bilbobus Bilboko auzo guztietarako garraio-bermetzat aldarrikatzen jarraitzea:

- 7.3.1. Hiriko gazteentzat, Bilbobusen GazteTrans prezio merkeagoko txartela ezartzea.
- 7.3.2. Bilboko autobusen etengabeko eraberritzea.
- 7.3.3. Zerbitzuaren kalitatea eta autobus-parkea mantentzeko kontrol eta jarraipen tresnak finkatzea.
- 7.3.4. Barne kudeaketa hobetzea eta Bilbobuseko bidaiarien erabilerratasuna eta hiritarrekiko komunikazioa xede duen eraberritze teknologikoari eustea.
- 7.3.5. Bilbobusen eskaintza hirian ezartzen diren garraio publikoetara egokitzeko aukera aztertzea.

### 7.4. Metro gehiago Bilbon:

- 7.4.1. Otxarkoaga, Txurdinaga, Zurbaran, Zazpi Kaleak, Uribarri eta Matiko auzoei zerbitzua emango dien Metroaren 3. Linea abian jartzen laguntzea.
- 7.4.2. Zamudioko Teknologia Parkera eta Bilboko Aireportura iritsiko den Metroaren 3. Linea luzatzearen aldeko apustua.
- 7.4.3. Zabalburu, Irala, Errekalde, Euskadi Plaza eta Deustu lotuko dituen Metroaren 4. Lineari buruzko proiektua gauzatzearen aldeko apustua.
- 7.4.4. Bilboren beharretara eta bertako jarduera eta ekitalkietara egokitzeko erraztasuna duen Metro baten aldeko apustua.

### 7.5. Tranbiaren luzapenari jarraipena ematea:

- 7.5.1. Tranbia Zabalburaino luzatzearen aldeko apustua, Hurtado Ametzaga kalean zehar, Plaza Biribilarekin lotzeko aukera eta guzti.
- 7.5.2. Bilbo-Zaharra, San Frantzisko eta Abusu auzoetan zehar tranbia luzatzeko aukerei buruzko azterketa erraztea.

### 7.3. Bilbobus Bilboko auzo guztietarako garraio-bermetzat aldarrikatzen jarraitzea

### 7.4. Metro gehiago Bilbon

### 7.5. Tranbiaren luzapenari jarraipena ematea



## 7.6. Mugikortasuna hobetzea

### 7.6. Mugikortasuna hobetzea:

7.6.1. Garraio publikoaren sustapenaren bidez zein mugikortasunaren ingurumen-eraginkortasunaren bidez, mugikortasun jasagarria sustatuko duten planak abian jartzea.

7.6.2. Plataforma logistiko adimendunen alde apustua egitea, merkantziak hirian banatzeko ahalmena hobetzeko asmoz.

7.6.3. Taxiaren sektoreari lagundu eta berriztatzea eta mikromugikortasun-politika berriak eratzea.

7.6.4. Mugikortasun seguruaren planekin eta trafikoa kontrolatzeko sistema adimendunekin aurrera jarraitzea, batez ere ikastetxeetan, adinekoentzako zentroetan eta jende ugari biltzen duten ekipamenduetan.

7.6.5. Etengabeko eraberritzea, trafiko-informazioan eta erregulazio-sistemetan puntako teknologiak sartuz.



## **8 - Eraldaketa jasangarriarekin aurrera jarraitzea**





## **8.1. Bilboko eraldaketarekin aurrera jarraitzea**

## **8.2. Bilboko Hirigintza-Antolamendu Plan Orokorren aldaketarekin jarraitzea**

## **8.3. Zorrotzaurre Bilboren hiri-garapenerako proiektutzat bultzatzen jarraitzea**

## **8.4. "Punta Zorrotzako" garatzen hastea**

8.1. Hirigintza-kalitateari eta jasangarritasunari dagozkien irizpideetan oinarrituta, Bilboko eraldaketarekin aurrera jarraitzea, garraio kolektiboaren eraginkortasuna, energiaren kontsumo-maila, uraren kalitatea eta bioaniztasuna bultzatuz. Horrez gain, hiriak jarduerak eta erabilerak uztartzen jarraituko du, gaurdainoko hiria eta historia errespetatuz.

8.2. Hiriko eragile sozialekin, profesionalekin, sektore kultural eta ekonomikoekin elkarlanean, Bilboko Hirigintza-Antolamendu Plan Orokorren aldaketarekin jarraitzea, antolakuntzatik kanpo dauden auzoen erregulazioaren mesedetan.

8.3. Zorrotzaurre Bilboren hiri-garapenerako proiektutzat bultzatzen jarraitzea, bizitegi eta ekonomia alorretako ahalmena eta ekipamenduzko ahalmena osatuz:

8.3.1. Zorrotzaurreko prozesu urbanistikoa osatzea eta HAPO eta BEPB aldatzea.

8.3.2. Zorrotzaurre irla bihurtzeko kanala irekitzeko proiektua eta lanen hasiera.

8.3.3. Etxebizitzak eta eraikinak birgaitzen laguntzea.

8.3.4. Zorrotzaurreko Plana garatzeko lehendabiziko faseari hasiera ematea.

8.3.5. Beste erakunde batzuekin elkarlanean jardutea, osasuna, hezkuntza, kirola eta museoak bezalako ekipamenduak gauzatzeko.

8.3.6. Esparru pribatuarekin elkarlanean jardutea, IDOM, IMQ, BBK, Metropoli Fundazioa eta BCAM Matematika Aplikatuko Euskal Zentroa bezalako proiektu traktoreak gauzatzeko.

8.4. "Punta Zorrotzako" garatzen hastea:

8.4.1. Ounta Zorrotzarako Plan Orokorren Aldaketa zehaztea.

8.4.2. Zorrotzako Hiltegiaren egungo instalazioetan enpresak ezartzeko gunea bermatzea.



## **8.5. Basurtu-San Mamesen, ekipamenduak, unibertsitatea, teknologia ekipamenduak eta etxebizitzak uztartuko dituen hiri-eremu berria antolatzea:**

- 8.5.1. San Mames Barriarekin elkarlanean jardutea futbol-zelai berria eraikitzeko.
- 8.5.2. Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta Bilbao Ría 2000 sozietatearekin elkarlanean jardutea, San Mamesen Bilborako errepide-sarbide berrien eraikuntza burutzeko.
- 8.5.3. Bizkaiko Foru Aldundiarekin elkarlanean jardutea, Sabino Aranako biaduktua kendu eta inguru berria urbanizatzeke.
- 8.5.4. Bentosa bidean Basurtu eta Olabeagaren arteko lotura hobetzea.
- 8.5.5. EHUrekin elkarlanean jardutea Basurtuko Campus Politeknikoa handitzeko proiektua gauzatzeko.
- 8.5.6. EHUrekin elkarlanean jardutea Basurtuko Medikuntza Fakultate berria kokatzeko gunea zehazteko.
- 8.5.7. Bilbao Ría 2000ekin elkarlanean jardutea Garellanoko etxebizitza proiektua zehaztu eta garatzen hasteko.

## **8.6. AHTren iritsierak eskainiko dituen aukerak aprobetxatuz, San Frantzisko-Zabala-Abandoko hiri-ereldaketa garatzea:**

- 8.6.1. Abandoko eremurako proiektu urbanistikoa zehaztea, San Frantzisko eta Zabala integratzeko eta auzo hauetako ekipamenduak hobetzeko aukera gogoan hartuta.
- 8.6.2. Ingurua berregokitzeko plan berria lantzea, hirigintza, zerbitzu publikoak, esparru sozial eta kulturala eta ekonomiaren sustapena txertatuz.
- 8.6.3. Mariaren Bihotza Plazako arkeologia-inguruneko erabilerak zehaztea.

## **8.7. Errekaldeko etorkizuna bultzatzea azpiegitura handien hobekuntzaren haritik:**

- 8.7.1. Errekalde-Iralan FEVE trenbidea lurperatzea eta ingurua urbanizatzea.
- 8.7.2. Bilbao Ría 2000 sozietatearekin elkarlanean jardutea Ametzola eta Iralaren arteko lotura eraikitzeko.
- 8.7.3. Errekalde zeharkatzen duen A-8 autobidea kentzean geratuko den eremurako erabilera berriak planteatzea.

## **8.5. Basurtu-San Mamesen hiri-eremu berria antolatzea**

## **8.6. San Frantzisko-Zabala-Abandoko hiri-ereldaketa garatzea**

## **8.7. Errekaldeko etorkizuna bultzatzea**



## 8.8. Bilboko Eraztun Berdearen garapenarekin aurrera jarraitzea

## 8.9. Itsasadarra, jarduera eta bizitza

### 8.8. Bilboko Eraztun Berdearen garapenarekin aurrera jarraitzea:

- 8.8.1. Bilbo inguruko parkeen erabilera bultzatzea, ekintza publiko eta pribatuak sustatuz.
- 8.8.2. Zurbaranbarri, Altamira eta Olabeaga inguruko hiri-parkeak sendotzen jarraitzea.
- 8.8.3. Bilboko Trekking-GR ibilbidea finkatzea, hirigunetik loturak sustatuz.
- 8.8.4. Aisirako hiri-inguruko "hondartza berdeen" sustapenarekin aurrera jarraitzea.

### 8.9. Itsasadarra, jarduera eta bizitza:

- 8.9.1. "Bilboko Zubiak" proiektua garatzea zubiak hobetu eta apaintzeko eta ondare turistikotzat sustatzeko.
- 8.9.2. Ingurumen Ministerioarekin elkarlanean jardutea Bilboko kaiak berriztatu eta finkatzeko.
- 8.9.3. Ingurumen Ministerioarekin elkarlanean jardutea Bilbon uholde arriskua murrizteko proiektua zehazteko.
- 8.9.4. Bilboko Portua eta Uren Partzuergoarekin elkarlanean jardutea Bilboko itsasadarrean bela eskola bat ezartzeko.
- 8.9.5. Itsasadarrean ekonomia-jarduerak sustatzea, ostalaritza-ontziak, zirkuitoak eta ur kirolak bezalako ekimenak bultzatuz.
- 8.9.6. Ibai-bazterrak oinezkoentzako eta aisirako ardatzat finkatzen jarraitzea, eta aurrerago gauza bera egitea Zorrotzurreko pasealekuekin eta Deustu eta San Inazioko bazterrekin.
- 8.9.7. Kaixu pasealekua, Abusu Ikastola eta Abusu auzoa Santa Isabel zubiaren bitartez burutzea.



## 8.10. Eraikuntza jasangarria eta etxebizitza eskuratzeko aukerak:

8.10.1. Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailarekin elkarlanean jardutea Boluetako Santa Anan, Miribillan, Ametzolan eta Zorrotzaurren sustapen publikoko etxebizitzaren eraikuntza garatzeko.

8.10.2. Bilbao Ría 2000 sozietatearekin elkarlanean jardutea Garellanon 1.100 etxebizitza eraikitzen hasteko, hoietatik 550 babes ofizialekoak.

8.10.3. Errekaldeberrin, Miribillan eta Zorrotzan 360 etxebizitza berriren eraikuntza amaitzea, Udal Etxebizitzak sozietateak sustatzen dituen Gaztelondoko etxebizitzak barne.

8.10.4. Udal Etxebizitzak sozietatearen bidez etxebizitza berriak sustatzeko planarekin aurrera jarraitzea.

8.10.5. Sustatzaile pribatuei etxebizitzak eraikitzeke ahalmena areagotzeko erraztasunak ematea, zergak edo topologia eskakizunak aztertuz.

8.10.6. Alokairua: Udal Etxebizitzak sozietatearen bidez etxebizitza alokatzeko programak areagotzea.

8.10.7. Zazpi Kaleak, Bilbo-Zaharra-San Frantzisko-Zabala, Zorrotzaurre, Atxuri, Solokoetxe edo Iturribide-Prim eremuetan etxebizitzak berregokitzeko plan espezifikoak garatzea.

## 8.10. Eraikuntza jasangarria eta etxebizitza eskuratzeko aukerak





## 9 - Familia eta hezkuntza integrala





## 9.1. Bilbo, hiri hezitzailea

9.1.1. Bilboko "Haurreskoletan" 0 eta 2 urte arteko haurrentzako plazak ugaritzeko planari eustea, Zurbaran-Zurbaranbarri, Zamakola eta Zabala-Miribilla eremuetako eskaintza osatuz.

9.1.2. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailarekin elkarlanean jardutea, Bilbon Lehen Hezkuntzako zentro publikoentzako 2011-2015 inbertsio plana garatzeko.

9.1.3. Gazteentzat "ikasteko" plaza kopurua areagotzea, azterketa-sasoiara egokitutako ordutegi malguak eskainiz.

9.1.4. Gizarte eta Hezkuntza laguntzarako tailer espezifiko bidez, eskolara egokitzeko zailtasunak dituzten Bilboko ikasleei laguntzea.

9.1.5. Bilboko ikasleen Guraso Elkarrekin harremanak estutu eta ekintzak burutzea.

9.1.6. Ikasleei zuzendutako ekintzekin ikastetxeen irekierarako "11x11" bezalako programaren bideragarritasuna aztertzea.

9.1.7. "Hezitzen duten auzoak" bezalako ekimenak bultzatuz, "Hiri Hezitzaileen" sarean Bilboren partehartzea bultzatzea.

9.1.8. Bilbo jasangarriago baten aldeko sentsibilizazio kainpainak: uraren erabilera, kotxearen erabilera, espazio publikoarekiko erantzukizuna ... Programan adierazitako kanpainak.

## 9.2. Bilbo, unibertsitate-hiria

### 9.2. Bilbo, unibertsitate-hiria:

9.2.1. Euskal Herriko Unibertsitatearekin elkarlanean jardutea Basurtuko Teknologia Campusa bultzatzeko, Meatzeen eta Herri Lanen Ingeniaritza Teknikoko fakultate berria eraikiz, Basurtuko Ospitalearen ondoan Medikuntza Fakultatea eraikitzen hasiz eta lan eta zuzenbide titulazioak ugaritzeko Sarrikoko Campusa garatuz.

9.2.2. Deustuko Unibertsitatearekin elkarlanean jardutea Deustu Business School eta unibertsitate alorreko bestelako bikaintasun eta ikerketa zentro garatzeko.

9.2.3. Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta Deustuko Unibertsitatearekin elkarlanean jardutea Bilboko Campusaren nazioarteko izaera zabaltzeko.



9.2.4. Hezkuntza Sailarekin elkarlanean jardutea, Bilbon, Arte Eszenikoetarako Goi Mailako Zentroa ezartzeko.

9.2.5. Talentua, ikertzaileak eta berrikuntza-zentroak erakartzeko lana garatzea.

9.2.6. BCAM Matematika Aplikatuaren Ikerketa-Zentroa Fundazioarekin elkarlanean jardutea, Bilbon ezarri eta ekimenak susta ditzan.

### 9.3. Familia eredu desberdinak:

9.3.1. Familia eredu guztiekiko errespetu programak areagotzea gizarte-kohesiorako eta hiritarren elkarbizitzarako oinarritzat.

9.3.2. "Senezko ordutegiak" delako ekimenaren aldeko konpromisoa hartzea, egungo ordutegiak apurka-apurka aldatu eta familia, bizitza soziala eta lana bateragarriak egiteko.

9.3.3. Udaleko eta udal sozietate publikoetako lan-hitzarmenetan lana, bizitza soziala eta familia bateragarriak egingo dituzten klausulak bultzatzea (7.4.5. atalean jasota).

9.3.4. "Senezko ordutegiak" ekimenaren inguruko sentsibilizazioa hedatzeko ekimenak garatzea.

9.3.5. Udal zerga, tasa eta prezio nagusietan familia ugarietzako hobariak ezartzeko politikak mantentzea.

9.3.6. Babesgabezia-arriskuan dauden adingabekoen inguruko lana garatzea, familia, eskola eta gizarte esparruetan programak bultzatuz.

9.3.7. Babesgabezia-arriskuan dauden adingabekoei jarraipen pertsonalizatua egitea eta familiekin lanean jarraitzea.

9.3.8. Arrisku-guneetan eta gizabiderik gabeko inguruneetan esku-hartze espezifikoak egitea.

9.3.9. Eskola-kirola, arte-jarduerak eta hizkuntza alorreko murgiltze-programak sustatzea ikasketa-orduetatik kanpo.

## 9.3. Familia eredu desberdinak



## 9.4. Zahartze aktiboa

## 9.5. Berdintasuna sustatzea

## 9.6. Bilbo, hiri irekia

46

### 9.4. Zahartze aktiboa:

9.4.1. Bizkaiko Foru Aldundiarekin elkarlanean jardutea Zorrotzan adinekoentzako egoitza eta eguneko zentroa eraikitzeko.

9.4.2. Bilbo, Adinekoekiko Hiri Adeitsuen Munduko Sarean sartzea.

9.4.3. Bilboko Udalarekin elkarlanean diharduten adinekoentzako 53 zentrozen egoera fisiko eta ekonomiko egokia bermatzea.

9.4.4. Bilboko Jubilatuen Elkarteei laguntzea zahartze aktiboa sustatzeko asmoz, haien jarduerak areagotuz eta dibertsifikatuz.

### 9.5. Berdintasuna sustatzea:

9.5.1. Udaleko zuzendaritza eta partaidetza organoetan emakumeen parte-hartzeari buruzko kuotak ezartzea eta esparru pribatuan zein enpresa giroan kuota hauek sustatzea.

9.5.2. Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alde sentiberatzeko kanpainak eta ekimenak garatzea.

9.5.3. Hiritarren gaineko erabakiak hartzen diren esparruetan emakumeen partaidetza bermatzea.

9.5.4. Bilbon emakumeen enplegu-tasa areagotzeko planak eta alargunen egoera ekonomikoa hobetzeko ekimenak sustatzea.

9.5.5. Bilbotarren bizitza pertsonala, familia eta lana bateratzen lagunduko duten ekimenak garatzea.

9.5.6. Sexu, erlijio, arraza eta kultur aniztasunarekiko tolerantzian oinarritutako hiri-eredua sustatzea, gizarteratze politikak sendotuz.

9.5.7. Berdintasunaren aldeko Kontseilua bultzatzea eta esparru honetan elkartegintza sendotzea.

9.5.8. "Bilbo, baliiodun hiritarrak" programa garatzea, etorkizunean hiria zuzenduko duten balio positiboen araberako heziketa sustatzeko.

### 9.6. Bilbo, hiri irekia:

9.6.1. Hiri irekia, tolerantzia eta aniztasuna integratzen dakiena sustatzea, etorkinen gizarteratzea eta hiriaren etorkizuneko garapena erraztuz.



9.6.2. Etorkinen elkarteei laguntzea eta kulturarteko integrazio eta elkarbizitza- politikak sustatzea, Immigrazio Gaietarako Bilboko Kointseiluarekin batera.

9.6.3. "Immigrazioaren Behatokia"ren barruan, Bilboko etorkinen egoerari buruzko aldian aldiko ikasketak eta diagnostikoak lantzea, gizarteratze politikak garatzeko oinarritzat.

9.6.4. Elkarbizitzaren Behatokiari laguntzea, gizarte edo auzo alorreko gatazketan bitartekaritza bultzatuz, bereziki esparru publikoan.

9.6.5. Immigrazioaren "Ghettoratzea" eta bazterketaguneen eraketa saihesteko planak garatzea.

## 9.7. Euskara, Bilboko ondarea:

9.7.1. Bilboko Udalean Euskarari laguntzeko politikai eustea, Administrazio alorreko eta hiritarren arteko erabilera bermatzeko.

9.7.2. Bilbon hizkuntzen arteko elkarbizitza sustatzea Euskararen gizarte-kohesioa areagotzeko, hiritarren atxikimendua bultzatuz.

9.7.3. Administrazioa erabat elebiduna izateko aurrerapausoak ematen jarraitzea, hiritarrei zerbitzuak bi hizkuntza ofizialetan eskainiz.

9.7.4. Euskaltzaindiarekiko lana eta lankidetzari eustea, Euskararen kalitatea eta kontserbazioa hobetzeko.

9.7.5. Erakunde, eragile eta kolektibo euskaltzale nagusiekin elkarlanean jardutea, hiritarren artean Euskararen erabilera sustatzeko.

9.7.6. Bilboko haur eta gazteen artean Euskara garatzeko programa espezifikoak abian jartzea.

9.7.7. Gurasoen euskalduntzea erraztea, etxe eta familia giroan euskararen erabilera sustatzeko asmoz.

9.7.8. Merkataritza, lana, elkartegintza eta jendaurreko jarduerak bezalako gizarte-esparruetan Euskara ezartzen laguntzea.

9.7.9. Teknologia berrien alorrean Euskararen ezarpena areagotzeko ekimenak sustatzea.

9.7.10. Bilboko Udalak Euskara erabiltzearen aldeko konpromisoari eustea, bereziki Alkatearen eta EAJ/PNVren hautetsien jendaurreko ekitaldietan.

## 9.7. Euskara, Bilboko ondarea





# **10 - Hirian bizitzea: Kultura, aisia, kirola**





## 10.1. Prioridad presupuestaria

## 10.2. Bilbo, kultura-jardueren gunea

10.1. Bilboko kirol, gizarte, kultura eta hezkuntza ekipamenduetako mantenimendua eta kalitatezko zerbitzuak lehentasunezkoztat jotzean aurrekontuetan, behar dituzten baliabide ekonomikoak bermatuz.

### 10.2. Bilbo, kultura-jardueren gunea:

10.2.1. Guggenheim Museoari lagundu eta Solomon Guggenheim Fundazioarekin hitzarmen berria sinatzea, pinakotekak nazioarteko erreferentzia izaten jarrai dezan.

10.2.2. Gainerako erakunde publiko zein pribatuekin elkarlanean jardutea Arte Ederren Museoa nazioarteko erreferentzia-zentrotzat kontsolidatzeko, pinakotekaren kalitate eta dimentsioari dagokion jauzi berri bat erraztuz.

10.2.3. Alhóndiga Bilbaoren ahalmenak oso-osorik garatzea, kultura, literatura, zientzia eta teknologia alorreko aisia-aniztasunaren nazioarteko eredu bihurtzeko asmoz.

10.2.4. Arriaga Antzokian kalitatezko programazio plural eta zabalaren aldeko apustuari eustea.

10.2.5. Bilbao 700 Fundazioari laguntzea, hiriko kultura dinamizatzeko tresnatzat.

10.2.6. Musika-Musica jaialdiaren aldeko apustuari eustea, musika klasikoaren izaera pedagogikoa eta dibulgaziozkoa nabarmenduz.

10.2.7. "365 Jazz Bilbao" bezalako ekimenak sustatzea, Bilbon jazz musikarekiko zaletasuna areagotzeko asmoz.

10.2.8. Bilboko koru jarduera bultzatzea.

10.2.9. Errekalde auzoan liburutegi berria irekitzea, Errekaldeberriko etxebizitzetan, Udaltegi berriaren eraikuntzaz baliatuta.

10.2.10. Auzoetarako kultura-zikloak programatzea, Barruti-Kontseiluetako batzorde sozio-kulturalekin adostuta, "Auzo Bihotzak" proiektuaren barruan integratzeko ahalegina bultzatuz.



### 10.3. Bilbo, kultura sortzeko gunea:

10.3.1. Arriaga Antzokian produkzio propioa eta koprodukzioen sorkuntza lanarekin aurrera jarraitzea, bertako sortzaile eta artistak bultzatuz.

10.3.2. Bilbao Artek artista gazteen sorkuntza dinamizatzeko egiten duen lana sendotzea, bekak, formakuntza eta dibulgazio planak garatuz.

10.3.3. Bilbok, arte garaikidearen nazioarteko erreferentziatzat duen ahalmena bultzatzea.

10.3.4. Sortzaile gazteei jarduera artistikoa garatzeko eremuak eskainiko dizkien tailer-estudio programa eratzea.

10.3.5. Sormena eta sorkuntza artistikoa sustatzeko programak sustatzea, nazioarteko zentroekin hitzarmenak eta esperientzia-trukaketak bultzatuz.

### 10.4. Bilbo, aisia eta ekitaldien hiriburua:

10.4.1. AlhóndigaBilbao, Bilboko aisia, kultura eta kirol alorreko gune nagusia den heinean, oso-osorik garatzea, hiriaren beharrak estali eta turismoarentzat erakargarria izan dadin.

10.4.2. Bilbao kontzertuen hiritzat sustatzea, San Mames, Bilbao Arena eta BEC bezalako ekipamenduen eta espazio publikoaren erabilera bultzatuz.

10.4.3. Bilbao Live Festival, Estatuaren iparraldeko kontzertu-jaialdien erreferentziatzat kontsolidatzea.

10.4.4. Botikazarreko egungo kontzertu eta ikuskizun gunearen ordezkotako gune berri bat finkatzea, Zorrotzaurreko hirigintza proiektua hasten denerako.

10.4.5. Ostalaritzarekiko elkarlana sustatzea, Bilbo gaueko aisia-eremutzat kontsolidatzeko, eskaintzaren kalitatea hobetuz.

10.4.6. Hiriaren aisia-eskaintzaren premia eta hiritarren bizitza-baldintzak eta atsedena bermatzeko premiaren arteko orekari eustea.

10.4.7. Auzoetan kultura eta aisialdirako jarduerak bultzatzea, Bilboko eremu bakoitzeko kolektibo sozialekin elkarlanean, kultura zabaltzeko kanpaina iraunkorrak sustatuz.

10.4.8. Espazio publikoa Bilboko jarduera eta eskaintza-gunetzat sustatzea, zerbitzu publikoari eta kalitateari buruzko irizpideak mantenduz.

### 10.3. Bilbo, kultura sortzeko gunea

### 10.4 Bilbo, aisia eta ekitaldien hiriburua



## 10.5. Bilbo eta kirola

### 10.5. Bilbo eta kirola:

10.5.1. "San Mames Barrian" Basurtuko kiroldegia eraikitzea, 50 metroko entrenamendu-igerilekua barne.

10.5.2. La Casillaren erabilera berria aztertzea, kirol jarduera mantenduz eta ingurua dinamizatuko duten erabilera berriak bilatuz.

10.5.3. "San Mames Barria" sozietatearekin elkarlanean jardutea Athleticen futbol-zelai berria eraikitzeko.

10.5.4. Abusuko futbol-zelaia irekitzea, lurzoruak garbitu eta zelai berria eraikitzeko lanak amaitutakoan.

10.5.5. Udal kiroldegien berriztapenarekin aurrera jarraitzea eta Deustu-Zorrotzaurre ingurunean itsasadarreko kirola egiteko eremu bat eratzeko proiektua garatzea.

10.5.6. WIFI eremuak jartzeko kirol-instalazioetan eta futbol-zelaietan.

10.5.7. Kirol elkarte eta klubekiko elkarlana eta laguntza areagotzea, beren lan desinteresatua aldarrikatu eta lan baldintzak hobetzeko.

10.5.8. "Futbolaren Hiria", Bilbon futbol-zelaiak jartzeko gune berriztatzea, lehendabiziko fasea garatuz.

10.5.9. Bilbon Munduko 2014ko Saskibaloia Txapelketa antolatu eta lehen mailako bestelako kirol norgehiagokak Bilbora ekartzea.



## **1. Barrutia**

# **ONENA EMATEKO GARAIA**

**Deustu, San Ignazio,  
Ibarrekolanda, Elorrieta eta  
Arangoititik**





## Deustu, San Ignazio- Ibarrekolanda eta Arangoiti

- Done Petri Plaza birmoldatzeko lanak hasia, Deustuko 'Auzo bihotza' izan dadin.
- Ramon y Cajal kalea eraberritu eta atzean dagoen trenbide zaharrea lur gaineko aparkalekua eratzea.
- Luis Power kalea eraberritzea.
- Blas de Otero kalea eraberritzeko lanekin aurrera jarraitzea.
- Deustuko Zubia hobetzeko lanekin aurrera jarraitzea, egitura irekitzeko gaitasuna bere horretan mantenduz.
- Deustuko argiteria hobetzeko lanekin aurrera jarraitzea.
- Agirre Lehendakaria Etorbidea hobetzeko lanak bideratzea.
- WIFI eremu berria sortzea Hizkuntza Eskola eta Done Petri Plazaren inguruan.
- Botikazarreko parkean dagoen patinaje-pista berritzea.
- Botikazarren haurrentzako jolas-gune estalia egitea.
- Arangotin oinezkoentzako eremua eraberritzeko lanekin aurrera jarraitzea.
- Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean jardutea Arangoitiko igogailua berrerabili eta abian jartzeko, auzorako sarbide mekanikoa bermatzearren.
- San Ignazio "Auzo bihotza" sortzea, Levante Plaza eta Agirre Lehendakariaren inguruko merkataritza eta jarduera soziala dinamizatzeke.
- Levante Plaza eraberritzea.
- Juan Antxeta kalea eraberritzeko lanekin aurrera jarraitzeko aukera aztertzea, 12, 14 eta 16 zenbakien inguruan.
- Orixe kalea asfaltatzea.
- San Ignazioko eskolan dagoen Haurreskolari gehitutako eremua zabaltzea.
- Haurrentzat estalitako jolas-gunea sortzea San Ignazio auzoan.
- Industri Ondarearen Euskal Elkartearekin elkarlanean jardutea Elorrietako "Ponpa-etxea" berreskuratu eta erakusgai jartzeko.
- San Ignazio Argiteria Hobetzeko Planarekin aurrera jarraitzea.
- San Ignazioko 'etxe sindikaletako' jabeekin elkarlanean jardutea barruko plazak hobetzeko.
- San Ignazio irisgarritasun planarekin aurrera jarraitzea, espaloiak behertuz eta zebrabideak antolatuz.



## 2. Barrutia

# ONENA EMATEKO GARAIA

Uribarri, Matiko, Castaños eta  
Zurbaranbarritik





## Uribarri, Matiko, Castaños eta Zurbararri

- Uribarri-Goikoan Goiko Auzoetarako Plana osatzea, argiteria, asfaltoa, hiri-altzariak, hormak etab. hobetzeko lanekin aurrera jarraituz.
- Castaños, Matiko, Loruri, Etxezuri Bidezidorra, Asuncion eta gainerako eremuetako ingurunea hobetzeko planekin aurrera jarraitzea.
- Trafikoa, sarbideak, aparkalekuak eta Bilbobusen zerbitzuak berrantolatzeko aukerak aztertzea Metroaren 3. Linea abian jartzen denerako.
- Ohiko bitarteko mekanikoez Metroaren 3. Lineako geltoki guztietarako sarbidea erraztea, eta bereziki Tiboliko Geltokian, Castañosetik sartuta.
- Matikon Metroaren 3. Linea lurpean ibiliko dela aprobetxatuz, aisia-jarduerak egiteko moduko oinezkoentzako ardatza sortzea Salbetik Uzturre Plaza eta Uribarri Plazaraino. Horrekin batera, Lezamako Trenbide Zaharra birmoldatu eta begiratokiak jartzea, argiteria, hiri-altzariak etab. berrituz. Bi eremu hauek lotu eta seinaleztatuko dira, auzokoentzako pasealeku zabala eratzeko asmoz.
- Bilbo-Lezama trenbidearen desagerpena bultzatzea Eusko Jaurlaritzaren aurrean, eta Metroaren 3. Linea abian jartzean jarduerarik gabe geratuko den eremu horretaz baliatzea Rikardo Arregi eta Montaña lotzeko eta aparkaleku berriak sortzeko.
- “Auzo bihotza” eratzeko proiektua aurrera ateratzea, Panera, Trauko, Uribarri, Matiko eta Tiboli-Castaños lotzen dituen ardatzean merkataritza, enpresa-jarduna eta bizitza sozial eta kulturala mantendu eta garatzeko asmoz.
- Harritxoen parkea amaitzea, bizilagunek lursailaren lagapena eginda.
- Artxandako futbol-zelaia hobetzeko lanekin aurrera jarraitzea: belarra, aldagelak, tribunak, ondoko eremuen kirol aprobetxamendua, etab.
- Gaztelekun, auzoari zerbitzuak ekarriko dizkion jarduketa urbanistikoa hasteko aukera azterketa.
- Zurbaranbarriko Goiko Auzoen Planarekin aurrera jarraitzea.
- Sarrikue, Remar, Begoñalde eta Ugarteburuko bizilagunekin elkarlanean jardutea eremu horien lagapena egin eta urbanizazio lanak abiarazteko.
- Goiko auzoetarako irisgarritasuna hobetzeko aukerak aztertzea.
- Umeentzako jolas-gune berriak sortzea, estalitako eremua barne.
- Oztopo arkitektonikoak kentzen eta espaloiak behar bezala jarraitzea.



- Andra Maria eta Lezamako Trenbide Zaharra kaleetan lur gaineko aparkaleku-kopurua handitzea.
- Zurbaranbarrin aparkatzeko eremu publikoak sortzeko era berriak aztertzea.
- Ugaz Parrokoa kaleko tunelean argiteria eta segurtasuna hobetzea.
- Zabalbideko errepidean oinezkoen segurtasuna hobetzeko neurriak aztertzea.
- Auzoko Wifi eremuak zabaltzea.
- Lezamako Trenbide Zaharra hobetzea, kaleko hormak hobeko aukera ere aztertuz.
- Artxanda aisialdi-eremutat sustatzea, bizikleten erabilera erraztuko duten azpiegiturak sortuz.
- Bilbobuseko lineak berrantolatzeke aukera aztertzea, Metroaren 3. Linea martxan jartzen denerako.
- Markesina jartzea Lezamako Trenbide Zaharrear.
- Mallonako futbol-zelaiko instalazioen hobekuntzarekin aurrera jarraitzea.
- Etxebarria parkeko hobekuntzekin aurrera jarraitzea, umeentzat estalitako jolas-eremua sortuz.





## 3. Barrutia

# ONENA EMATEKO GARAIA

Txurdinaga eta Otxarkoagatik





## Txurdinaga eta Otxarkoaga

- Auzoa hobetzeko Imajinatu Otxarkoaga partaidetza-proiektua hedatzen jarraitzea.
- Gizabidea eta elkarbizitza lantzeko programak garatzea, ondasun publikoen erabilera egokia eta auzokideenganako errespetua sustatuz.
- Otxarkoagan "gatazkak konpontzeko" lana indartzea, gizarte nahiz auzo alorreko gatazka-egoerei aurre egiteko.
- Gazteak, ama gazteak, hirugarren adinekoak eta arriskuan egon daitezkeen bestelako kolektiboak babesteko ekimenak aztertu eta planteatzea.
- Udal Etxebizitzak erakundeak hutsik dituen lokalak artista gazteek lantokitizat erabiltzeko aukera aztertzea.
- Metroaren 3. linearen iritsierari begira, Kepa Enbeita plaza egokitzea, Otxarkoagako "Auzo-bihotza" bihurtzeko asmoz.
- Otxarkoagan lur gainean aparkatzeko plaza-kopurua areagotzea.
- Julian Gaiarreko plazak urbanizatzea, auzokoek lursailak lagatu ostean.
- Otxarkoagan irisgarritasuna hobetzen jarraitzea, arrapalak eta igogailuak bezalako elementu mekanikoen instalazioa aztertuz.
- Txurdinagan boulevard berri bat sortzea, Begoñazpitik Europa Parkeraino.
- Garai Lorategian estalitako jarduera-eremua eratzeke aukerak aztertzea.
- Jabeekin elkarlanean jardutea, Txomin Garateko arkupeak hobetzeko.
- Bilbobusek barrutian dituen lineak berregokitzea Metroaren 3. Linea abiarazten denerako, Julian Gaiarretik irisgarritasuna sendotzeko asmoz.
- Txurdinagako "Auzo bihotza" sortzea Julian Gaiarreko merkataritza-eremuan.
- Argiteria hobetzea Jesus Galindez eta Ondarroa kaleetan eta Julian Gaiarreko futbol-zelaiaren inguruan.
- Txurdinagan lur gaineko aparkaleku-kopurua areagotzea.
- Espaloiak beheratuz eta Txurdinagako irisgarritasun-plana amaitzea.



## 4. Barrutia

# ONENA EMATEKO GARAIA

Begoña, Santutxu eta Boluetatik





## Begoña, Santutxu eta Bolueta

- Federico Etxebarria eta Felipa Zurikaldy etxaldean eraberritze integrala, Santutxuko Hockey taldeari behin-betiko alternatiba eskainiz, Txurdinagako polikiroldegian ahal izanez gero.
- Basarrate "Landa" plaza eta ingurua eraberritzea.
- Santutxuko erdialdeko eremuren batean haurrentzako jolas-eremu estalia sortzeko aukera aztertzea.
- San Joakin auzoan lur gaineko aparkalekua eraikitzeko aukera aztertzea eta irisgarritasuna hobetzea.
- Resurreccion Maria de Azkue, Santa Luzia, Santa Zezilia, Juan Viar... kaleak hobetzeko lanak.
- Indalecio Prieto kalean abiadura moteltzeko sistemak aztertu eta hobetzea.
- Laurencin Markesa kalea hobetzea.
- Fika kalea hobetzeko aukerak aztertzea.
- Karmelo Plazaren hobekuntza estetikoa.
- Santutxun "Auzo bihotza" eratzea, merkataritza eta bititza ekonomikoa, sozial eta kulturala dinamizatzeko.
- Luis de Etxebarria plazako bizilagunekin elkarlanean jardutea argiteria publikoa hobetzeko.
- Landaburu Baserria bezalako kaleetan Argiteria Hobetzeko Planarekin aurrera jarraitzea.
- Begoña auzoan Argiteria Hobetzeko Planarekin aurrera jarraitzea.
- Haro Plazako egoiliar-jabeei berrurbanizazioa egiteko aukera erraztea, dirulaguntza ekonomikoa eta laguntza teknikoaren bitartez.
- Ricardo Bastida eremuko egoiliar-jabeei berrurbanizazioa egiteko aukera erraztea, dirulaguntza ekonomikoa eta laguntza teknikoaren bitartez.
- Juan Irigoyen eta Larroque Margolaria kaleak hobetzeko aukera erraztea bertako egoiliar-jabeei, dirulaguntza ekonomikoa eta laguntza teknikoaren bitartez.



## 5. Barrutia

# ONENA EMATEKO GARAIA

Zazpi Kaleak, Atxuri, Solokoetxe,  
Abusu, San Frantzisko, Zabala,  
San Adrian eta Miribillatik





## Zazpi Kaleak, Atxuri, Solokoetxe, Abusu, San Frantzisko, Zabala, San Adrian eta Miribilla

- Erriberako Merkatua birmoldatzeko lanak amaitzea, Zazpi Kaleetako merkataritza sustatzeko moduko ekipamendu bihur dadin.
- Zazpi Kaleetan eta Atxurin hutsik dauden lokalen merkataritza-aukerak eta okupazioa hobetzeko plana garatzea.
- Espazio Publikoa mantentzeko Plan Espezifikoak garatzea, Zazpi Kaleetako bizitza-kalitatea eta habitagarritasuna bermatzeko.
- Atxurin eta Solokoetxen kirol anitzetarako kantxa estaliak eratzeko aukerak aztertzea.
- Umeentzat estalitako jolas-eremua eratzea Areatzan.
- Zabalbide kaleko lehen tarteunean arrapala mekanikoa instalatzeko aukera aztertzea.
- Iturribide kalea eraberritzea.
- Gayarre plaza hobetzea.
- Zazpi Kaleetan oinezko-erabilerak hobetzeko plana abian jartzea.
- Abusu auzoa eta Abusu Ikastola lotzen dituen zubia babestea, oinezkoentzako bide bat estaliz.
- Abusuko liburutegiaren ordutegia luzatzea.
- Abusun haurrentzako jolas-gune estalia egitea.
- Abusuko Ibaieder Parkean adinekoek "ariketa fisikoak" egiteko gunea jartzea.
- Abusuko Udaltegia hobetzea.
- Buiako argiteriaren hobekuntza integrala.
- Abusuko futbol-zelai berriaren eraikuntza amaitzea, kutsaturiko lurzoruak garbitzeko lanak osatu ondoren.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin elkarlanean jardutea, Juan Delmas ikastetxeko kirol instalazioekin batera, Abusu auzoarentzako Haurreskola berria kokatzeko.
- Malmasin kaleko argiteria eta ingurunea hobetzea.
- Zamakola kaleko hormaren hobekuntza estetikoa, Abusuranzko sarbidean.
- Abusun Bilbobus zerbitzua hobetzeko moduak eta Boluetako Metroarekin eta beste garraiobide batzuekin izan ditzakeen loturak aztertzea.
- Miribillan kontrol eta segurtasun neurriak bultzatzea, Bilbao Arenan eta Frontoian jarduerak edo kirol probak antolatzen direnean.



- Euskal Jaurlaritzarekin elkarlanean jardutea, Miribilla-San Adriango Osasun Zentroa eraikitzeke.
- Udal Etxebizitzak erakundeak Goikotorren dituen lokalen balizko erabilerak aztertzea.
- Miribilla eta San Adrian auzoetako bizilagunentzat aparkaleku berriak eraikitzeke aukerak sustatzea.
- Umeentzat estalitako jolas-gunea eratzea Miribillan.
- San Frantzisko, Bilbo Zaharra eta Zabalako Plan Berezia birdefinitzea.
- San Frantzisko eta Zabalako merkataritza tradizionala hobetzeko plana.
- Tranbia San Frantziskon zehar luzatzearen alde apustu egitea.





## 6. Barrutia

# ONENA EMATEKO GARAIA

Abando eta Indautxutik






## Abando eta Indautxu

- Zabalguneko aparkalekua berregokitzea, Colon de Larreategi kalean oinezkoen joan-etorrien jarraikortasuna erraztuko duten sarbide berriak sortuz.
- Zabalguneko Plaza birmoldatu eta eremu osoa berrantolatzea, atsedenerako leku gehiago lortu eta Zabalgune Eraikinarekiko loturak hobetzeko.
- Pio Baroja Plazan haurrentzako jolas-gune estalia egitea.
- Ingelesen Landan Abandoibarrako parkea amaitzea.
- Uribitarteko kaian, era askotako jarduerak egiteko moduko erabilera anitzeko egitura estalia jartzeko aukera aztertzea.
- Gregorio de la Revilla kalea oso-osorik eraberritzea Indautxu eta Campuzano plazen artean.
- Iparragirre kaleari tratamendu estetikoa ematea Guggenheim Museotik Kale Nagusirainoko eremuan.
- Jabeekin elkarlanean jardutea Estrauntza kalea hobetzeko.
- Maria Diaz Haroko kalea birmoldatzeko lehen fasea hastea.
- Iberdrola Dorreko eta BBVA Dorreko jabeekin elkarlanean jardutea, eraikin hauek enpresa-gune bihurtu eta eremua Bilboko barruti ekonomikotzat sendotzeko asmoz.
- Abandon eta Indautxun ibilgailu partikularren senezko erabilera bultzatzeko neurriak aztertzea, habitagarritasunaren mesedetan.
- Abiadura Handiko Trenaren iritsieran eta Abandoko geltoki berriaren proiektua zehaztu eta gauzatzeko ahaleginean laguntzea, garraiobideen arteko integrazioaren mesedetan, tren-zerbitzu desberdinak, hiri barruko eta hiri-arteke autobusak eta txandakako aparkalekuak uztartuz.
- Abandon eta Indautxun argiteria hobetzeko planarekin aurrera jarraitzea.
- Abandon eta Indautxun umeentzako jolas-gune gehiago sortzea.
- Garcia Rivero kaleko bizilagunekin, merkatariekin eta ostalariekin lanean jarraitzea, kalea hobetzeko behin-betiko jarduketa zehaztearren.
- Bizkaiko Foru Aldundiarekin elkarlanean jardutea, Sabino Arana kaleko biaduktua eraitsi eta inguru berriaren urbanizazioa definitzeko.
- Gobernuaren Ordezkariordeztzarekin elkarlanean jardutea, Indautxuko komisaldegia ingurua duintzeko.



- Bilbao Alhóndiga zentroaren erabilera osagarriak bultzatzea, Abando eta Indautxuko bizitza sozial eta kulturala dinamizatzeko.
- Barrutiko jarduera sozialak eta kulturalak areagotzea, programak garatzea erraztuko duen kokaleku egokia eta egonkorra bilatuz.







## **7. Barrutia**

# **ONENA EMATEKO GARAIA**

**Errekalde, Ametzola,  
Irala, Peñaskal eta  
Bertolatza-Uretamenditik**





## Errekalde, Ametzola, Irala, Peñaskal eta Betolatza- Uretamendi

- Auzoko ekipamenduak berrantolatzea, Errekaldeberriko etxebizitza berrietan kokatutako Errekaldeko Auzo Etxe berriaren irekieraz, jubilatuen etxea Gordonizeko egungo udaltegira eramanez.
- Eusko Jaurlaritzarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin elkarlanean jardutea, Errekalde, Irala eta Zabalbururi zerbitzua emango dion Metroaren 4. Linea aurrera ateratzeko.
- Errekaldeko Tolosa etxaldeko urbanizazioari berrekitea, esparru publikoaren lagapena eginez gero.
- Lur gaineko aparkalekuak antolatzeke lanak amaitzea Tolosa etxaldea eta A-8 autobidearen ondoan.
- Errekalde Plaza hobetzea: altzariak, argiteria, umeentzako eta adinekoentzako jolas-guneak.
- 'Lemoa zelaian' erabilera anitzeko eremu estalia eratzea auzoan egiten diren jardueretarako.
- A-8 autobidearen azpian dagoen bigarren frontoiaren erabilera aztertu eta ingururako alternatibak planteatzea.
- Hirigintza alorrean Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean jardutea, Gardeazabal-Peñascalén etxebizitza berriak eraiki eta auzo honetako irisgarritasun eskasa eta duintasunezko etxebizitzarik eza konpontzeko.
- Ingurubide kalean sarbide eskasa duten etxebizitzetarako irisgarritasuna hobetzeko neurriak aztertzea.
- 'Pacheca Parkea' eta Betolatza Parkea hobetzea.
- Bilbao Ria 2000ekin elkarlanean jardutea Ametzola eta Irala lotzeko.
- Iralako Udaltegia berrantolatzea.
- Ametzola Plaza hobetzea.
- Irala auzoko trafikoa lasaitzen jarraitzea.
- FEV Erekiko elkarlanari eustea, Errekalde eta Iralako trenbideak lurperatu eta ingurua berrurbanizatzeko, Errekalde eta Bilboko erdialdearen arteko lotura erraztuz.



## 8. Barrutia

# ONENA EMATEKO GARAIA

Basurtu, Olabeaga, Zorrotza,  
Altamira, Masustegi,  
Mintegitxueta eta Kastrexanatik





## **Basurtu, Olabeaga, Zorrotza, Altamira, Masustegi, Mintegitxueta eta Kastrexana**

- Bizkaiko Foru Aldundiarekin elkarlanean jardutea, Sabino Aranako biaduktua kendu eta eremu berriaren urbanizazioa definitzeko.
- San Mames Barriarekin elkarlanean jardutea futbol-zelai berria amaitzeko.
- San Mames Barria estadioaren barruan udal kiroldegi berri bat eratzea.
- Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta Bilbao Ria 2000ekin elkarlanean jardutea San Mamesen Bilboranzko errepide-sarrera berria amaitzeko.
- Basurtu eta Olabeagaren arteko lotura hobetzea Bentosa Bidean.
- EHUrekin elkarlanean jardutea, Basurtuko Campus Politeknikoa handitzeko proiektua gauzatzeko.
- EHUrekin elkarlanean jardutea, Medikuntza Fakultate berriak Basurtun izango duen kokapen-eremua zehazteko.
- Termibuseko gaur egungo autobus geltokia birmoldatzea.
- Bilbao Ria 2000ekin elkarlanean jardutea, Garellanoko etxebizitza-proiektua definitu eta gauzatzen hasteko.
- Renferen lehengo trenbideaz baliatuta, Olabeagarako sarbideak osorik hobetzea.
- Olabeaga auzoa osorik eraberritzeko Planarekin aurrera jarraitzea.
- Etxebizitzak berregokitzeko Surbisako planetan Olabeaga sartzeko aukera bultzatzea.
- Igogailua eraikitzea, Olabeagako Udategirako irisgarritasuna hobetzeko.
- Zorrotzan "Auzo bihotza" sortzea; auzoko gizarte-jarduerak eta merkataritza dinamizatzeke.
- Zorrotzako merkataritza-eremuaren berrikuntzarekin aurrera jarraitzea Untziola eta Abaro Estrata kaleetan.
- Zorrotzan estalitako jolas-eremua jartzea.
- A-8 autobidearen behealdeko oraingo jolas-gunean lur gaineko aparkalekua egitea.
- Zorrotzako argiteria hobetzeko plana osatzea.
- "Punta Zorrotzako" proiektu urbanistikoa garatzea auzoa zabaltzeko, etxebizitza-eremu berriak sortzeko eta teknologia-zentroa eratzeko.
- "Punta Zorrotzako" plana aurrera ateratzea hiltegiaren gaur egungo instalazioetan, enpresa-eremu baten ezarpena bizkortzeko.



- Zorrotza eta Kastrexana zeharkatzen dituen FEVEko trenbidearen ustiapena Euskadira ekartzea, auzoak Abandorekin era eraginkorren lotuko dituen tren-zerbitzua antolatu ahal izateko.
- Zorrotzako kiroldegiko aldageletan hobekuntzak egitea.
- Eusko Jaurlaritzarekin eta Barakaldoko Udalarekin elkarlanean jardutea, Zorrotza eta Kastrexanako industriak sortzen dituen usain txarrak eta ingurumen-kutsadura murrizteko plana garatu ahal izateko.
- Hobekuntzak egitea Kastrexanako eskolen inguruan eta geltokia plazarekin lotzen duen pasealekuan.
- Kastrexanako eskola zaharrari eman ahal zaizkion erabilera ezberdinak aztertzea.
- Kastrexanan Wifi eremua sortzea.
- Kastrexanako markesina birmoldatu eta autobus geltokien inguruko argiteria hobetzea.
- Masustegin eta Mintegitxuetan Goiko Auzoen Planarekin aurrera jarraitzea.
- HAPNa aldatzea, Masustegi eta Mintegitxuetako etxebizitzak urbanistikoki integratu eta antolamenduaren barnean egon daitezen.
- Masustegiko eraikuntzetan jabego pribatua erregularizatzea.
- Masustegi berrurbanizatzeko planarekin aurrera jarraitzea, segurtasunari eta oinarrizko sareei lehentasuna emanez.
- Masustegin eta Mintegitxuetan lur gaineko aparkaleku txikiak eratzeko aukerak aztertzea.
- Mintegitxuetan Bilbobuseko lineen mugikortasuna hobetzea.
- Altamiran aparkalekuak sortu eta haurrentzako jolas-guneak egiteko aukerak aztertzea.